


6. BEZEROEKIKO HARREMANAK

Kanalak dira Vitalix erabiltzaile, erakunde eta komunitate osoarengana iristen den bidea. Atal honetan definitzen da nola ezagutarazten den aplikazioa, nola banatzen den, nola sartzten diren erabiltzaileak eta erakundeak sisteman, eta nola mantentzen den komunikazio jarraitua. Kanal hauek kritikoak dira aplikazioaren hazkundera eta eguneroko funtzionamendua bermatzeko.



Laguntza pertsonala


Vitalix-ek harreman zuzen eta pertsonala ezartzen du erakunde publiko eta instituzionalekin, proiektuaren ezarpena eta funtzionamendu segurua bermatzeko. Udaletako eta osasun-erakundeetako ordezkariekin bilera teknikoak egiten dira, protokoloen bateratzea eta KPI operatiboen jarraipena koordinatzeko. Harreman zuzen honek konfiantza instituzionala sortzen du eta aplikazioaren ezarpenari eta erabilerari buruzko gardentasuna bermatzen du.

Laguntza pertsonal eskusiboa

Administrazio eta erakunde publikoek arduradun dedikatu bat izango dute Vitalix-ekin komunikatzeko. Arduradun honek erakunde bakoitzaren esperientzia eta erabilera gainbegiratzen du, KPI txosten espezifikoa eskaintzen ditu eta erabilera datuen interpretazio eta analisi operatiboa egiten du. Harreman pertsonalizatu honek erabilera-erabakia eta integrazio instituzionala errazten ditu, eta udal bakoitzaren behar eta eskakizunetara egokitutako zerbitzua eskaintzen du.

Autozerbitzua

Herritarrek eta boluntario sanitarioek autozerbitzu-ingurune intuitibo eta autonomoa izango dute aplikazioaren barruan. Horri esker, erabiltzaile bakoitzak bere profila kudeatu, prestakuntza-maila eguneratu, alerten historia kontsultatu eta aplikazioaren erabileran bere inpaktua neurtu ahal izango du. Autozerbitzu eredu horrek prozesu operatiboak sinplifikatzen ditu eta erabiltzailearen autonomia indartzen du, erantzun-denborak gutxituz eta aholkularitza manualaren beharra murriztuz.



Zerbitzu automatizatuak

Vitalix-en protokolo adimendunek eta automatizatuak geolokalizazioarekin, dispatxearekin eta boluntarioen aktibazioarekin lotutako prozesuak modu koordinatuan kudeatzen dituzte.

Sistemak erabiltzaileen portaera historikoa eta prestakuntza-maila integratzen ditu, aktibazio eraginkorragoa bermatzeko. Zerbitzu automatizatu hauek erantzun-denbora optimizatzen dute eta giza akatsen probabilitatea nabarmen murrizten dute.



Komunitateak eta baterako sorkuntza

Vitalixen funtzionamendua komunitate aktibo batean osatzen da, non boluntario eta herritarrek ezagutza partekatzen duten eta aplikazioaren hobekuntzan ekarpen zuzenak egiten dituzten. Plataforma honek komunitate sozial eta sanitario sendoago bat sortzen du, elkarlanean eta parte-hartze aktiboan oinarrituta. Erabiltzaileek elkarrekin ikasteko eta esperientziak partekatzeko aukera dute, eta horrek sistema guztiaren funtzionamenduan inpaktu positiboa sortzen du.

BIBLIOGRAFIA:

- García,B.-Tena, D.-Bernabeu, M^a E.- López, C. (2025). Itinerario personal para la empleabilidad. TULIBRODEFP.

-STARTINNOVA plataformako materiala.

-<http://blog.hubspot.es/sales/modelo-canvas>

- Logoa: https://desing.com/_s

-Argazkiak:

<https://chatgpt.com/>